

Bertizko jaureria

JON ABRIL

Nafarroako oihanik aberatse-
netakoa da Bertizkoa, hain-
bertze jende erakartzen duena
gaur egun. 1984an Nafarroa-
ko Gobernuak natur parke
izendatu zuen, baina mende-
tako historia du gibeletik, oi-
nordekotza gatazkak tartean,
eta eskualdean eragin handi-
koa da. Bidasoa Ikerketa Zen-
troak, Baztan-Malerreka-Bor-
tzirietako historia ikertzeko
erakundeak, Bertizko jaure-
riaren historia biltzen duen li-
burua karrikaratu du bere koa-
derno hirugarren zenba-
kian. Andoni Esparza ardura-
tu da lan hori idazteaz.

Gaur egungo Bertizarana
udalerrian kokatua dago natur
parkea, eta udalerraren 38,75
kilometro koadroetatik 20,4
kilometro koadro hartzen di-
tu; erdiak baino gehiago, ale-
gia. Orain artean ikertu gabe-
ko arloa izan da jaureriarena,
eta, horretarako, egileak XVI.
mendetik aitzinerako doku-
mentazioa erabili du.

Bertizko jaureria Erdi Aro-
tik hasi eta 1884a bitarte oi-
nordekotza bidez pasatu zen
belaunaldiz belaunaldi. Ho-
rrek hainbertze gatazka eta
liskar eragin zuen, eta epaite-
giek erabaki behar izan zuten
behin baino gehiagotan berta-
ko auzia. Bertizkoa leinu-
etxea zen. Nobleziaren leinu-
rik zaharrenetatik heldu ziren
etxeek zuten titulu hori, eta ja-
torri armaria zuten. Nafarroa-
ko Gorteetan beren aulkia
zuten etxe haien jabeek, no-
blezia ordezkatzen zuen adar
militarraren barrenean.

Bertiz familiako lehenbiziko
kideez ez dago informazio ani-
tzik, eta historialariek elkarren kontra-
ko datuak ere ematen dituzte maiz.
Andoni Esparzak, zenbait historiala-
riek egin lanen ondorioz, Pedro Mi-
guel Bertizekin hasi du saila. Mendial-
deko merinoa izan zen 1389az geroz-



Pedro Ziga, jaureriaren azken jabea.



Oinordekotzatik herriaren eskura

Bertizko jaureria Nafarroan dauden hiru natur
parkeetako bat da. Urtean milaka bisitari jasotzen dituen
eremu horren historia ez da berria. Ibilbide hori jaso du
«Bertizko jaureria» liburuan Andoni Esparzak

tik Arantzako partidetarako. Haren
seme Miguel Perez Bertiz izan zen oi-
nordekotza. Aitaren kargu guztiak hartu
zituen hark 1424an. Baina 1451n
agramondarren eta beaumontarren
artearen piztutako gerra zibilarren ondo-
rioz, kargua galdu zuen. Haren seme
Petri Santz Bertizek 1457an ihes egin
zuen printzearen kartzelatik, eta Oro-
nozko gaztelua hartu zuen 1460an.
Urte bat geroago Bertizko jauna zen.
Haren semeak ere ez zuen arazorik
izan 1474tik aitzin jauna izateko.

Oinordekotzan gatazka

Baina 1552an Amaiurko gaztelua ero-
ri zenean, bertiztarrek erabat ahulduta
gelditu ziren, harik eta Alain Bertiz
Maria Allorekin ezkondu zen arte.
Alloarrek portu eta aduana anitzetako
eskumenak zituzten, eta hori indarber-
ritzea izan zen bertiztarrentzat. Hala
ere, haien seme Martin Bertizekin ara-
zo franko etorri zitzaizkion familiari.
Erregearen koparia eta Santiagoko
abituaren zalduna zen Martin Bertiz.
Lehenik Greida Lodosarekin ezkondu
zen, eta harekin ez zuen umerik izan.
Bai, ordea, Joana San Martin eta Ma-

ria Beaumontekin. Ezkontzaz kanpo-
ko ume bat baino gehiago ere bazuen,
aitortu gabea. Greida Lodosarekin ez-
kontuta aberastasun ugari elkartu zi-
tuzten, eta Lodosaren heriotzarekin
Martin Bertiz izan zen oinordekoa, eta
horrek Frantzisko Lodosarekin izuga-
rrizko auzia izatea ekarri zion. Epaia
Bertizen aldekoa izan zen.

Hortik aitzin, behin eta berriz izan
zen jabetza auzitan, baina bereziki
1604 eta 1611 bitartean. Salaketa Jo-
an Alduntzin goizuetarrak eta bere
osaba Martin Alduntzinek paratu zu-
ten Luis Bertiz eta bere ama Joana
Beumonten aurka. Lehenbiziko epaia,
1608koa, Alduntzin osaba-ilobaren

aldekoa izan zen. 1611koa ere
ez zen Bertizen aldekoa izan,
baina 1672an Bertiz hiltzeare-
kin bat egin ziren alduntzinda-
rrak Bertizko jaureriaren jabe.
Haien oinordekoen eta Antonio
Barragan Bertizen arteko auzia
berrituko zen XVII. mendearen
erdialdera. 1716an, Joan Fran-
tzisko Alduntzin hiltzean, berriz
ere auzia sortu zen. 1737an Bi-
dasoako gainerako herriekin
lortutako akordioek bakea eka-
rri zuten oinordekotzetan. Ez-
kontzen bidetik Vessollako
markesen esku gelditu zen jau-
regia XVIII. mendearen erdial-
dera.

Aldi berria Bertizen ere

Ilustrazioaren eta fisiokraten
eraginez, nekazari eremua ba-
lioberritu zen Europa osoan, eta
nekazaritza zein abeltzaintzako
teknika berri-berriak sartzean
aldaketak ailegatu ziren Bertiz-
zera ere.

1848tik aitzinera ere lorategi-
a zaintzen hasi ziren, batik bat
Felix Lambert lorazain frantse-
sa iritsi zenean. Sasoi hartan
moda-modan zeuden lorazain
frantziarrak aristokraten arte-
an.

1884an Elio familiak jauregia
saldu behar izan zuen, zorrei
ezin aurre eginik. Oteitza fami-
lia narbartearrak erosi zuen jau-
rerria, 450.000 pezetaren truke,
eta 1900. urtea bitarte eduki
zuen familia horrek, urte hartan
bertan saldu baitzioten Pedro
Zigari jaureria, 650.000 peze-
taren truke. Oteitzaren gestio-
an nabarmentzekoa da Bertiz
kontzeju bihurtu zuela.

Zigak jauregia eta kapilla be-
rritu zituen, eta lorategi berriak
egin. Jauregian, lehengoaren

egitura gorde zuen. 1903rako lorategi-
a handitua zegoen, 3,4 hektareako
eremua harturik. Inspirazio naturalis-
ta eta erromantikokoa da. Urmaelak,
harri hondarrak, bidexkak eta landa-
retza ugari ageri dira. Lorategia gaur
egun ez dago sortu zen garaian bezala.

Baina Bertizko jaureria Zigaren es-
ku geldituta, bi aldaketa nagusi gerta-
tu ziren. Batetik, oihanetik arbola
gehiago ez ateratzeko agindua eman
zuen, eta, bertzetik, Aizkolegin etxea
egin zen, eta bertaraino iristeko 11 ki-
lometroko errepidea. Estilo moder-
nistako etxea da, baina gaur egun ego-
era txarrean dago.

Pedro Zigak bere heriotzan jaureri
osoa «Nafarroari eta bere izenean Fo-
ru Diputazioari» utzi zion. Baina ho-
rretarako zenbait baldintza jarri zi-
tuen, tartean arbolak eta adarrak moz-
teko debekua, ehiza eta arrantzan ari-
tzeko debekua, fabrika, harrobi edo
antzekorik ezin paratu, ibilgailuak ibil-
tzeko muga eta mendi-bestak egiteko
ezintasuna. 1984an natur parke izen-
datu zuen Nafarroako Gobernuak, eta
inbertsio handiak egin dira geroztik bi-
sitarientzat atontzeko.

**Ilustrazioaren eta fisiokraten
eraginez, nekazari eremua
balioberritu zen Europa osoan, eta
teknika berri-berriak sartzean
aldaketak ailegatu ziren Bertitzera**